

## UDALAREN ERAKETA AKTA

Parte hartzen duten zinegotziak:

**EAJ/PNV talde politikoko  
hautatuak:**

Patxi Albisu Estensoro  
Felix Urkola Iriarte  
Amagoia Naldaiz Mingo  
Xanet Barreras Jauregi  
M<sup>a</sup> Lourdes Garmendia Guerra  
Jabier Arrasate Aierbe  
Inazio Estensoro Eskisabel  
Inazio Barandiaran Aldasoro

**PSE-EE / PSOE talde  
politikokoak:**

Juan Manuel Serna Portugal  
Angel Hernandez Marzal

**EB-B / ARALAR talde  
politikokoa:**

Iñaki Saldaña Herrero

Lazkaoko Udaletxeko Areto Nagusian, bi mila eta zazpiko ekainaren hamaseiko goizeko bederatzietan bildu dira lehen deialdian, joan den maiatzaren hogeita zazpian egindako udal hauteskundeetan aukeratuak izan eta alboan zerrendatuta agertzen diren zinegotzi hautatuak.

Idazkari lanetan Lazkaoko Udalaren idazkari den Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Idazkariak adierazten du batzarraldi honen helburua Udalaren eraketa dela, horrela martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorretako Lege Organikoaren 195.1 artikulok eta Udal Korporazioetako Antolakuntza eta Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 37.1 artikulok agindutakoa betez, ondoko gai zerrendaren arabera:

- Korporazioa eratzea.
- Alkatea aukeratzea eta karguaren jabe egitea, kasua balitz.

Idazkariak batzarraldiari hasiera eman ondoren, Adineko Mahaia osatzen da, martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoko 195.2 artikuluan aurrikusitakoa betez. Mahai hori Inazio Barandiaran Aldasoro zinegotziak burutzen du, zinegotzi zaharrena izateagatik eta Xanet Barreras Jauregi izango da zinegotzi gazteena denez Mahaiko beste partaidea. Idazkari gisa berriz Udalarena den Idazkariak jardungo du.

Mahaiko idazkariak aldez aurretik berari entregatutako kredentzial guztiak banan banan irakurtzen ditu, zinegotzi hautatuen nortasuna kreditatzen dutenak, eta Mahaikideek kredentzial horiek egiaztatu ondoren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriekin bat datozela ikusten da.

### KORPORAZIOAREN ERAKETA.-

Aurreko operazioak egin ondoren eta kontuan izanik batzarraldi honetara hautatuak izan diren hamahiru zinegotzietatik hamaika etorri direla, hau da, legezko gehiengo osoa, Adineko Mahaiko Buruak karguaren jabetza ematen die zinegotzi hautatuei, aldez

aurretik legeko tramite guztiak bete ondoren eta Korporazioa formalki eratua aldarrikatzen du.

Honen ondoren Urkola zinegotziak (EAJ) esaten du jendartean daudenek beren adierazpena egitea eskatu dutela eta, bere alderdiaren, EAJren, izenean, adierazpen hori egiten uztea eta esaten dena aktan jasotzea eskatzen du. Mahaiburuak ontzat ematen du eskaria eta jendartetik ondorengo adierazpena irakurtzen da:

Gaur, 2007-ko ekainaren 16-a, Euskal Herriaren historian beste egun beltz bat bezala seinalatua daukagu gure egutegian. Demokraziaz eta tolerantziaz aho bete hortz mintzatzen zaretenok, beste behingoz, duela lau urte egin zenuten bezalatsu, herriaren hitza eta beraz bere borondatea bahitu duzue PUTXERAZO ELEKTORALAZ baliatuta. Kasu hone-tan 739 lazkaotarren ahotsa eta erabakitzeke eskubidea zapuztu duzue zuen interes alder-dikoiak direla medio. Zuek EAJ/PNV-ko kideak, herriak eman ez dizkizuen bi zinegotzi pos-tu usurpatu dituzue eta PSE eta PP-k beste zinegotzi bana.

Herriak esan duena errespetatzeko bideak egon badaudela denok dakigu, baina horretarako ezinbestekoa da borondate politikoa izatea. Adibide moduan aipatu hor da-goela LOREG-eko 182.2 artikulua zeinak ahalbideratuko lukeen EAE-ANV-ko kideoi dagoz-kigun zinegotzi karguak eskuratzea.

Zuen borondate ezak, udal hau herritar batzuen udala izatea eta ez lazkaotar guz-tiona ahalbideratzen du, lehen eta bigarren mailako herritarrek sortuz. Baina ez dezazuela pentsa guzti honek kokilduko edo isilaraziko gaituenik.

Adierazle gisa gaur hemen zuen aurrean hutsik geratuko diren lau aulki hauek di-ra. 739 herritar errepresentatzen dituztenak eta zalantza izpirik gabe batzuen botere ab-solutu edo agian absolutistaren kontrol zehatza egingo dutenak. Beraz, azti, aulki hauen aurrean boterearen zein kudeaketa egiten duzuen, kalean salatzen jarraituko dutelako eta lazkaotar guztien etxeetako sukaldeko aulki bihurtuko direlako! HERRI BORONDATEA ERRESPETATU!! PUTXERAZORIK EZ!!

Jarraian alkatearen aukeraketari ekiten zaio.

#### ALKATEA AUKERATZEA.-

Idazkariak bertan daudenei adierazten die martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organi-koaren bidez aldatutako Hauteskunde Orokorren Erregimenari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluan xedatzen denaren arabera, korporazioa eratu den batzaraldi berdinean aukeratu behar dela alkatea ere, lege horretan ezarritako pro-zedurari jarraiki:

- Hautagai zerrendaburu diren zinegotzi guztiak dira.
- Hautesle bertan dauden zinegotzi hautatu guztiak dira.
- Aukeraketa txartel sekretu bidez egingo da, botazio bakarra eginez.
- Botuen legeko gehiengo osoa lortzen duen hautagaia izango da hautatua, beraz, gutxienez 7 botu beharko dira.

- Botazio honetan gehiengo osoa hautagaietako inork lortzen ez badu, automatikoki, botu kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautatua aldarrikatuko da Alkate. Berdinketa gertatuz gero, zozketa bidez ebatziko da.

Txosten honen ondoren eta gai honi buruz ditugun aurrekinetan oinarrituz, ondoko zinegotzi hautatuak izendatzen dira alkategai:

Patxi Albisu Estensoro, EAJ alderdiko zerrendaburu dena.  
Juan Manuel Serna Portugal, PSE-EE/PSOE alderdiko zerrendaburua dena.  
Iñaki Saldaña Herrero, EB-B/ARALAR alderdiko zerrendaburu dena.

Idazkariak zinegotzi bakoitzari txartel bat ematen dio, txartel bakoitzean alkatetarako bozketatzen duen zinegotziaren izen-deiturak jarri behar dituela eta txartela idatzita-ko aldea behera begira dela entregatzeko adieraziz.

Behin txartel guztiak jaso ondoren, botuen kontaketa egiten da, honako emaitza-rekin:

Patxi Albisu Estensoro zinegotziak, 8 botu  
Juan Manuel Serna Portugal zinegotziak, 2 botu  
Iñaki Saldaña Herrero zinegotziak, botu 1

Botazio honen emaitza ikusirik, Patxi Albisu Estensoro zinegotzi hautagaia aldarrikatzen da Udal honetako Alkate, hautagai hau izan delako botuen legezko gehiengo osoa lortu duena.

Jarraian, Patxi Albisu Estensoro hautatuak Udal honetako Alkate kargua onartu egiten duela adierazten du eta, hauteskunde legeriak ezarritako formularen arabera betekizunak egin ondoren, karguaren jabetza hartzen du edukitza hau ematen dion korporazio osoaren aurrean, edukitza horrek barnean hartzen dituelarik indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten prerrogatiba, eskubide eta obligazio guztiak.

Alkateak amaitutzat ematen du Udal Korporazioaren eraketa ekitaldia bertaratu diren guztiei eskerrak emanez, eta batzarraldia akta honen buruan esandako egunean goizeko bederatziak eta laurdenetan bukatzen da, nik, idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.